

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

2013ko maiatzaren 17a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamahirugarren urteko maiatzaren hamazazpian, ortziralea, arratsaldeko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta ondoko zinegotzi hauek etorri direla: Ainara Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote, Izaro Mitxelena Rekondo, José E. del Río Echeverría, José Luis Echegaray Andueza, José Esteban Echeveste Apezteguía, Pedro Apezteguía Alzugaray, Victoriano Ruiz Álvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Ez da agertu Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco zinegotzi jauna eta ez etorri izana justifikatu du.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA.**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2013ko apirilaren 19koa.

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO**

17 de mayo de 2013

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes diecisiete de mayo del año dos mil trece, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: doña Ainara Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote, doña Izaro Mitxelena Rekondo, don José E. del Río Echeverría, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.

No acude, habiendo excusado su inasistencia, el concejal don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA
SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 19 de abril de

A series of handwritten signatures in black ink, including the mayor's signature and those of the council members, located at the bottom of the document.

2013.

2 - FIDEL ARAMBURU ALZUGARAYK ESKATURIKO OIHAN-PROBETXAMENDUA.

2013ko apirilaren 10ean aurkezturiko eskaera aztertuta (1.042. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 - Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Fidel Aramburu Alzugaray jaunak eginiko eskaera, pinu intsignisen matarrasa egiteko, 43.893 m2ko lur-eremu bateko 10.000 m2ko azalera daudenak, Gartxokil alderdian. Katastroko 6. poligonoko 69-K partzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2013/12).

2 - Interesatuari jakinaraztea, lursail hori komunal ageri dela udal katastroan eta, horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremu horren jabetzari buruz.

3 - UDALA BERRIZ SARTZEA BERTIZKO TURISMO PARTZUERGOAN.

Plenoak, 2006ko azaroaren 24an eginiko osoko bilkuran, erabaki zuen Lesakako Udalak utzi egin behar ziola Bertizko Turismo Partzuergoko kide izateari urte hartako abenduaren 31n.

Hala ere, geroago eta bereziki azken urte hauetan, bi erakunde hauek interes komuneko proiektu desberdinetan elkarlanean aritu dira

2 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR FIDEL ARAMBURU ALZUGARAY.

Examinada la instancia presentada con fecha 10 de abril de 2013 (entrada nº 1.042 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Fidel Aramburu Alzugaray para realizar un corte a matarrasa de pino insignis, en una superficie de 10.000 m2 perteneciente a una finca de 43.893 m2, situada en el paraje de Gartxokil. Corresponde a la parcela 69-K del polígono 6 del catastro (referencia del aprovechamiento: Oihapart/2013/12).

2º Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

3 - REINCORPORACIÓN DEL AYUNTAMIENTO AL CONSORCIO TURÍSTICO DE BERTIZ

El Pleno, en sesión celebrada el día 24 de noviembre de 2006, acordó que el Ayuntamiento de Lesaka abandonara el Consorcio Turístico de Bertiz con fecha 31 de diciembre de ese año.

No obstante, con posterioridad y especialmente durante estos últimos ejercicios, ambas entidades han cooperado de forma

gogobeteko eran.

Hori ikusita, Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 – Bertizko Turismo Partzuergoari eskatzea Lesakako Udalaren itzultzea.

2 – Severiano Txoperena Matxikote jauna izendatzea udal-ordezkaritza entitate horren aitzinean, eta Peio Etxabide Gartzia jauna ordezko.

4 – BIDE BERDEAREN PROIEKTUAK UKITUTAKO PARTZELEN KATASTRO-ALDAKETA.

Bide berdea gisa erabiltzeko, Bidasoako trenbide zaharreko Endarlatsa-Donztebe tartea egokitzeko, proiektuaren 1. fasearen eraikuntzak berekin ekarritako Nahitaezko Desjabetze espedientean, 2013-01-24ko datarekin Lesakako partzela komunalen okupazio partzialeko bortz aitzineko akta altxatu dira, hain zuzen ere ondoko haueri eragiten dietenak, zehazten diren azaleretan:

satisfactoria en diversos proyectos de interés común.

A la vista de ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º Solicitar al Consorcio Turístico de Bertiz la reincorporación del Ayuntamiento de Lesaka.

2º Designar como representante municipal ante el mismo a don Severiano Txoperena Matxikote y como suplente a don Peio Etxabide Gartzia.

4 – MODIFICACIÓN CATASTRAL DE PARCELAS AFECTADAS POR EL PROYECTO DE VÍA VERDE.

En el expediente de Expropiación Forzosa motivado por la construcción del Proyecto de adecuación del trazado del antiguo ferrocarril del Bidasoa en el tramo Endarlatsa-Donztebe/Santesteban para su utilización como vía verde, Fase 1ª, se han levantado con fecha 24-01-2013 cinco actas previas de ocupación parcial de parcelas comunales de Lesaka, y que afectan en concreto a las siguientes, en las superficies que se detallan:

AURREKO AKTA ZKIA. ACTA PREVIA Nº	POLÍGONO POLIGONO	PARTZELA PARCELA	AZALERA M2 SUPERFICIE M2
78	1	55-V	3.039,92
	1	55-AT	8,36
	1	55-AP	31,92
49-1	1	510	24,34
42	2	184	70,39
45	2	194	583,96
39	3	376	121,77

Hirigintza Batzordeak aztertu du espedientea, eta aldeko txostena eman du.

Hori dena aintzat hartuta, Osoko bilkurak honako hau erabaki du, aho batez:

1 – Egin daitezela, dagozkion tramiteak egin ondoren, erreferentziaturiko desjabetze-espedienteak eraginiko azalaren aldaketa katastralak, katastroa aldatuz hura egokitzeko bere gaurko bide erabilerakoara (jabari eta erabilera publikoko ondasuna), Bidasoako trenbidea kenduenez geroztik mantentzen den aldatugabeko erabilera.

2 – Erabaki honen berri ematea Trabajos Catastrales S.A. enpresari, hori baita Udal honetako Lurralde-Ondasuneko Erregistroaren mantenimenduaz arduratzen dena, Bertizko Turismo Partzuergoari, desjabetzearen entitate onuraduna den heinean, eta Sustapen-Departamentuko Desjabetzeen Atalari, dagozkion ondorioetarako.

5 – HITZARMENA GURATRANSEKIN.

Osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:

1 – Honako agiri hau onestea: *Hitzarmena, uraren tokiko kudeaketa hobetzeko hainbat ekintza egite aldera: eskariaren kudeaketa plana, ur zerbitzuen tarifikazio sistema, eta uraren ingurumen ekoauditoreak udal instalazioetan.* Guratrans proiektuari, dagokio, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa Fundazioak sustatua.

El expediente ha sido examinado por la Comisión de Urbanismo, que lo ha informado en sentido favorable.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda, por unanimidad:

1 – Que se proceda, previos los trámites correspondientes, a la realización de las modificaciones catastrales de las superficies afectadas por el expediente de expropiación referenciado, modificándose el catastro para adecuar el mismo al de su uso actual como camino (bien de dominio y uso público), uso que se mantiene inalterado desde que se suprimió el ferrocarril del Bidasoa.

2 – Dar traslado del presente acuerdo a la empresa Trabajos Catastrales S.A. encargada del mantenimiento del Registro de Riqueza Territorial de este Ayuntamiento, al Consorcio Turístico de Bertiz como entidad beneficiaria de la expropiación y a la Sección de Expropiaciones del Departamento de Fomento, a los efectos oportunos.

5 – CONVENIO CON GURATRANS.

El Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar el *Convenio para la realización de acciones para la mejora de la gestión local del agua: plan de gestión de la demanda, sistema de tarificación de los servicios de agua, y ecoauditorías ambientales de agua en las instalaciones municipales.* Corresponde al proyecto Guratrans, promovido por la Fundación Centro de Recursos Ambientales de Navarra.

2 – Erabaki honen berri ematea Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa Fundazioari.

2º) Que se notifique el presente acuerdo a la Fundación Centro de Recursos Ambientales de Navarra.

6 - ALKARREKIN S.A.-K AURKEZTURIKO PROPOSAMENA, HIRIGINTZAKO UDAL-PLANAREN 26. E.U. ALDATZEKO.

6 - PROPUESTA PRESENTADA POR ALKARREKIN S.A. PARA LA MODIFICACIÓN DE LA U.E. 26 DEL PLAN MUNICIPAL DE URBANISMO.

2013ko martxoaren 6an, Javier Salegui Chantre jaunak, Alkarrekin S.A.-ren ordezkari gisa, eskaera bat aurkeztu zuen (681. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), hirigintzako Udala Plana aldatzeko, 26. Exekuzio Unitateari dagokionean, Alkaiaga auzoan dagoena.

Con fecha 6 de marzo de 2013 don Javier Salegui Chantre, en calidad de representante de Alkarrekin S.A., presentó una solicitud (entrada nº 681 en el Registro General del Ayuntamiento) para la modificación del Plan Municipal de urbanismo, en lo relativo a la Unidad de Ejecución nº 26, situada en el barrio de Alkaiaga.

Aldaketa horrek proposatzen du Exekuzio Unitate berri bat sortzea, hortik kanpo utziz hegian dauden lurak. Horrela, barruti berria hiru lurzorujabek soilik osatuko lukete. Bertzalde, kalifikazioa aldatuko litzateke, bizitegi-gunetik tertziariora (ostalaritza, merkataritza, bulegoak, etabar) eta aurretiko bizitegi-eraikinaren finkatzea baimenduko litzateke.

La misma propone crear una nueva Unidad de Ejecución, dejando fuera de ella los terrenos situados en la ladera. De esta forma el nuevo ámbito lo integrarían tan solo tres propietarios de suelo. Por otra parte la calificación cambiaría de residencial a terciario (hostelería, comercial, oficinas, etc.) y se permitiría la consolidación del edificio residencial preexistente.

Udaleko Hirigintzako Batzordeak aztertu du afera eta, herriko dendarien elkartarekin ere kontaktuak izan dira.

El asunto ha sido estudiado por la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento y se han mantenido también contactos con la asociación de comerciantes de la localidad.

Horri buruz, alkate jaunak zera dio: "Gai honekin, aipatu Chantrek aurkeztu zuela proposamen hau. Erran behar da Udala ere aspaldi samar hasia zela U.E. 26ari aterabide bat bilatu nahian, gaur egun erresidentzial bezala kalifikatua dagoelako. Dagoen lekuan eta dagoen egoerarekin,

Al respecto el señor **alcalde** indica: "En relación a este tema, indicar que Chantre presentó esta propuesta. Hay que decir que también el Ayuntamiento comenzó hace bastante tiempo a buscar una salida para la U.E. 26, ya que hoy en día está calificada como residencial. En el lugar donde

A collection of handwritten signatures and scribbles in black ink, located at the bottom of the page. The signatures are somewhat illegible due to their cursive and overlapping nature. There are approximately seven distinct signatures or scribbles visible.

hagitz zail ikusten da erresidentzial bezala unitate hori garatzca. Chantrek egindako proposamena aztertu dugu eta berarekin ere bilera bat izandu genuen apirilaren 17an gaia aztertzeko eta bertan ateratu genituen ondorio nagusiak hiru izan dira:

1.) Alde batetik unitatearen delimitazioa aldatu nahi zuela eta horren aintzinean gure prestakuntza adierazi genion, beti ere gainerako jabeen adostasuna lortzen bazen.

2.) Unitatearen erabilera erresidentziala tertziariora aldatu nahi zutela erran zuen. Honen aintzinean, gure taldeak kezka agertu zuen, kalifikazio honek aukera sortzen ahal duela bertan merkatal gune handi bat irekitzeko.

3.) Beraiek, Chantretarrek, beraien intencioa zein zen argi adierazi ziguten eta erran ziguten beraien eremuan merkatal gune bat eta gasolindegia bat eraiki nahiko lituzketela.

Hau dela eta, gure taldeak proposamen honen kontra bozkatzeko erabaki du. Hau onartzeak bertan merkatal gune handi bat eraikitzeko aukera ekarriko bailuke eta sektore honek gure herrian eta inguruko herrietan bizi duen egoera zaila dela ikusirik, ez dugu onuragarritzat hartzen horrelako zentro bat gure inguruan ezartzea. Hau dela eta, "kontra bozkatu dugu".

Jose Luis Echegaray jaunak erantzun du: "Guk, Lesakako Hirigintza-Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren hasierako onespeneraren alde eman behar dugu botoa, planeatze-sektoreko 26.

está y con la situación que tiene, se ve muy difícil desarrollar esa unidad como residencial. Hemos examinado la propuesta realizada por Chantre y también mantuvimos una reunión con él el 17 de abril para examinar el tema y las conclusiones principales que obtuvimos en la misma han sido tres:

1ª) Por una parte que quería modificar la delimitación de la unidad y ante ello le manifestamos que nosotros estábamos de acuerdo, siempre que se lograra la conformidad de los restantes propietarios.

2ª) Dijo que querían modificar el uso de la unidad de residencial a terciario. Ante ello nuestro grupo mostró su preocupación, ya que esta calificación puede permitir la apertura ahí de un gran centro comercial.

3ª) Ellos, los Chantre, nos manifestaron claramente cual era su intención y nos dijeron que quisieran edificar un centro comercial y una gasolinera en su zona.

Por ello nuestro grupo ha decidido votar contra esta propuesta. El aprobar esto daría la oportunidad de edificar ahí un gran centro comercial y a la vista de la difícil situación que vive este sector en nuestro pueblo y en los pueblos de la zona, no vemos beneficioso el establecer un centro así en nuestro entorno. Por ello votaremos en contra".

Responde don José Luis Echegaray: "Nosotros, vamos a votar a favor de la aprobación inicial de la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbanística de Lesaka en la Unidad

A collection of handwritten signatures and scribbles at the bottom of the page. On the left, there is a large, complex scribble. In the center, there are several distinct signatures, including one that appears to be 'A. E.' and another with the number '6' written below it. On the right, there are more signatures, including one that looks like 'J. L. E.' and another that is a simple cross-like mark.

Exekuzio Unitatean, 7. Lurzoru Erresidentzialean.

de ejecución nº 26 del sector de planeamiento en el Suelo Residencial nº 7.

Ekimen honen alde eman behar dugu botoa, ulertzen dugulako gaur egungo egoera ekonomikoarekin, unitate honi bizitegi-guneko kalifikazioa mantentzea, industrial eta tertziarioa bihurtzeko aukera izanik, eutsiezina iruditzen zaigulako, eta are gehiago, kontuan hartzen badugu hurbil dagoen Berako Agerrako proiektu erresidentzialaren garapena, dagoeneko tramitatzen ari dena, eta justun Bidasoa Ibaiaren bertze aldean eta San Estebaneko zubiaren ondoan dagoena, hori izanik aipatzen ari garen lur-eremutik banantzen duen bakarra, eta horregatik pentsatzen dugu aldaketarekin inguru honetako beharrak osatuko genituzkeela.

Vamos a votar a favor de esta iniciativa porque entendemos que con la actual coyuntura económica, mantener la calificación de residencial a esta unidad, teniendo la oportunidad de convertirlo en industrial y terciario, lo consideramos insostenible y más, si tenemos en cuenta, el desarrollo del cercano proyecto residencial de Aguerria en Bera ya en trámite y situado justo al otro lado del Río Bidasoa y el puente de San Esteban, que es lo único que lo separa del terreno que nos ocupa, por lo que pensamos que con el cambio completariamos las necesidades de esta zona.

Era berean iruditzen zaigu Lesakan dagoen langabeziaren arazo larria dela-eta, orain lehentasun gehien duena lanpostuak sortzea dela, eta hori bakarrik sustatzaileei lurzoru industrial eta tertziarioa eskainita egiten ahal da, eta hori da, gure irudikoz, eskaera honetan proposatzen dena.

Consideramos también que, dado el problema del paro existente en Lesaka, lo que tiene máxima prioridad ahora es la creación de puestos de trabajo y esto sólo es posible ofreciendo a los promotores suelo industrial y terciario, que es a nuestro entender lo que se propone en esta solicitud.

Animatzen gaituena ere aldaketaren alde agertzera, toki horretan inork etxebizitzarik ez eskatzeak eta sustatzaile bat izateak lurzoru industrialean eta zerbitzuetakoan inbertitzeko prest dagoena.

También nos anima a posicionarnos a favor de la modificación, la ausencia total de demanda de vivienda en ese lugar y la existencia de un promotor dispuesto a invertir en suelo industrial y de servicios.

Bertzetik, iruditzen zaigu Lesakako hiri-antolamenduko Plan Orokorreko Elementuren Aldaketa puntuala honetan proposatzen den antolamenduak ondoko hau duela helburutzat: ingurua eta eginen diren eraikinak antolatzea, gaur eguneko eraikin erresidentziala barruti berriaren

También consideramos que, la ordenación propuesta en la presente Modificación Puntual de Elementos del Plan General de Ordenación Urbana de Lesaka busca ordenar la zona y sus futuras edificaciones, encajar la consolidación del actual edificio residencial dentro del nuevo ámbito, darle

A collection of handwritten signatures and scribbles in black ink, located at the bottom of the page. The signatures are stylized and vary in complexity, some appearing as simple lines and others as more intricate loops and curves. They are positioned below the printed text, likely representing the signatories of the document.

barrenean finkatzea, eta unitate honetako 179 partzelan DAKA QUADS S.L.-k baimenik gabe eraiki dituen bi nabeekin sorturiko arazoari irtenbide duin bat ematea, Berara eta Alkaiaga auzora sarbideak era egokian antolatzea errotonda batekin, etabar; beraz, guretzat gaurko egunera unitate honi ematen ahal zaion irtenbiderik egokiena da.

Momentu honetan alkateak iragarri duen azalera handiko eraikuntzari dagokionez, iradokitzen diot hartu behar dituen erabakiak hartzeko idatzitako eta Udal honetako sarreraren Erregistroan aurkezturiko dokumentazioaren gainean; izan ere alkate jauna hasten bada hirigintzari buruzko erabakiak hartzen erraten diotenaren arabera, udal hau oso gaizki ateri ahal izanen litzateke, eta gaurko egunera, Lesakan azalera handiko denda bat ezartzeko eskaerarik ikusi gabe segitzen dugu. Gai bat, zeinak Udal honetan aurkeztu diren aurrerabideko proiektu guztiak geldiarazi dituen 2005. urtetik, zeinean xebrerren bati gogoratu zitzaion Udal honetako bileretan erabiltzen den hiztegian *azalera handia* hitza sartzea, mahai honetatik gaur arte pasatu diren inongo alkatek eta zinegotziek ezta aldi bakar batean ere idatzita ikusi gabe. Beraz, udalbatza honi arren eskatzen diot lan egiteko aurkezturiko dokumentuen gainean eta bila dezatela, kasu honetan, bezala, aukeraren bat langabeziaren kontrako borrokan aitzinera egiteko, horrek izan beharko bailuke Udal honen lehentasuna”.

Alkatea: “Nik aipatu nahi dut, gaiari dagokionez, argi dagoela halako zentro bat sortzeko lanpostu batzuk sortuko litzuzkeela, baina aldi berean

una salida digna al problema creado en la parcela 179 de esta unidad con las dos naves construidas sin autorización por DAKA QUADS S.L., organizar de forma adecuada los accesos a Bera y al barrio Alkaiaga con una rotonda etc. por lo que para nosotros es la mejor salida que se le puede dar a esta unidad a día de hoy.

En cuanto a la construcción de una gran superficie anunciada por el alcalde en este momento, yo le sugiero que las decisiones que vaya a tomar las tome sobre documentación escrita y presentada en el Registro de entradas de este Ayuntamiento, porque si el señor alcalde empieza a tomar decisiones de tipo urbanístico según lo que dicen, podría este Ayuntamiento salir muy mal parado y a día de hoy, seguimos sin ver ninguna solicitud de instalación de una tienda de gran superficie en Lesaka, un tema que viene paralizando todos los proyectos de progreso presentados en este Ayuntamiento desde el año 2005, en el que a algún gracioso se le ocurrió introducir en el vocabulario utilizado en las reuniones de este Ayuntamiento la palabra *gran superficie*, sin haberla visto escrita ni una sola vez por ninguno de los alcaldes y concejales que han pasado hasta hoy por esta mesa. Por lo tanto, ruego encarecidamente a esta corporación trabaje sobre documentos presentados y que busquen, como en este caso, una posibilidad de avanzar en la lucha contra el paro, que debería ser la primera prioridad de este Ayuntamiento”.

Alcalde: “Por lo que respecta al tema quiero indicar que queda claro que el crear un centro así crearía unos puestos de trabajo, pero al mismo

ikusten dugu, lanpostu batzuk ere suntsituko lituzkeela. Bertako merkatari txikienak hain zuzen ere eta Lesakan sektore honek duen garrantzia kontuan hartzekoa iruditzen zaigu, familia aunitz oraindik ere modu horretan bizi direnak.

Gero, José Luisek aipatu duen moduan, merkatal gune bat eraikitzeko proposamen konkretua ez dago idatziz aurkeztuta, baina Chantretarrek argi eta garbi adierazi ziguten zein zen beraien intentzioa apirilaren 17ko bileran. Jose Luis bera ere bilera horretan zegoen.

Guk adierazi genien Chantretarrei, lehen erran dudan bezala, ados ginela delimitazioaren eta erabileraren aldaketarekin, baina tertziariora pasatzekotan bertan ezartzen ahalko ziren aktibitateen taula bat seguruenik ezarriko genuela erran genien. Taula horretan bertan, merkatal gune handiak, moduren batean, debekatuko lirateke.

Baina Chantretarrei ere galdetu zitzaizkien ea aurrera pausoak emateko borondatea izango luketen ez bagenuen merkatal zentrorik onartuko eta beraien adierazi ziguten momentuz ez zutelako bertze aukerarik aztertu eta, beraz, hori zela beraien proposamena. Hau dela eta, ez diogu zentzurik hartzen beraien aurkezturiko U.E. 26aren aldaketaren proposamena onartzea”.

Echegaray: “Aunitz sentituz, alkate jaunari zuzendu behar diot gauza txiki batean, nahasten baititu Chantrekin izaniko bilerak eta haien edukia, eta garbi utzi nahi dut, bai alkate jaunak, bai hirigintzako zinegotzia den Txoperena jaunak, aditu

tiempo vemos también que destruiría unos puestos de trabajo. Concretamente los de los comerciantes minoristas de aquí y nos parece que hay que tomar en consideración la importancia que este sector tiene en Lesaka, a las muchas familias que viven aún de ese modo.

Después, como ha indicado José Luis, no se ha presentado por escrito una propuesta concreta para construir un centro comercial, pero en la reunión de 17 de abril los Chantre nos indicaron claramente cual era su intención. El mismo José Luis estaba en esa reunión.

Como antes he indicado, nosotros manifestamos a los Chantre que estábamos de acuerdo con el cambio de la delimitación y del uso, pero que en el caso de pasarlo a terciario, les dijimos que seguramente pondríamos una tabla de las actividades que se podrían desarrollar allí. En esa misma tabla, de algún modo, se prohibirían las grandes superficies comerciales.

Pero también se les preguntó a los Chantre si tendrían voluntad de dar pasos adelante, si no aceptáramos el centro comercial y ellos nos indicaron que, de momento, no habían examinado más alternativas y que, por ello, esa era su propuesta. Por eso no le vemos sentido a aprobar la propuesta de modificación de la U.E. 26 presentada por ellos”.

Echegaray: “Sintiéndolo mucho tengo que rectificar al señor alcalde en un pequeño detalle, porque mezcla las reuniones mantenidas con Chantre y su contenido y quiero dejar claro que, tanto el señor alcalde como el señor Txoperena,

ahal izan dituztela Chantre jaunaren iritziak azalera haundi bat ezartzeko aurkerari buruzkoak. Baina gonbidatua izan nintzen bilera bakarrera, joan nintzena, Chantre jauna ez zegoen bilera bat zen; izan ere, bileran egon ginen, zehazki, alkatea, bi zinegotzi, Chantrearen arkitektoa eta abokatua eta Alkatetzaren aholkulari den Joxe Martin Abaurrea jauna, eta hor, bilera horretan, gai teknikoez bakarrik solas egin zen, eta alkate jaunak eskatu ziona izan zen 600 m2ko eraikin bat, bi solairutan, jartzeko aukera erretiratzeko, hori agertzen baita aldaketa horretan, eta Alkarrekin enpresako ordezkariak uko egin zioten horri. Baina, logikoki, ez Chantrearen arkitektoak, ez abokatuak ez zuten hitz egin nabe horri eman behar zitzaion erabilerari buruz, haiak aldaketa honen alde teknikoa eta juridikoa defendatzen baitute eta ez zein izanen den azken erabilera. Beraz, berriro ere diot, arren eskatzen diot udalbatza honi lan egiteko aurkeztutako dokumentuen gainean, idatzitakoak eta sinatuak, eta ez hor barrena aipatzen denaren gainean, nahiz eta erraten duena Chantre jauna izan, Irigoyen jauna edo inoiz argitu ez zen X jauna”.

Alkatea: “Nik, aipatu, izandako bileran, nik bederen, argi eta garbi aditu niela beraien intenzioa zela, lehen erran bezala, merkatal gune bat eta gasolindegi bat egitearena. Hala ere, lehen erran dugun bezala, unitate hau garatu ahal izateko lanean eta harremanetan jarraituko dugu Chantreekin, beti ere gure postura zein den garbi utziz eta akordioak bilatzeko asmoz. Baina gaurko proposamen honen kontra bozkatuko dugu lehen erran bezala, momentu

concejal de urbanismo, han podido oir comentarios del señor Chantre sobre la posibilidad de la instalación de una gran superficie. Pero a la única reunión a la que fui invitado y asistí era una reunión en la que el señor Chantre no estaba, porque en la reunión estábamos exactamente, el alcalde, dos concejales, el arquitecto y el abogado de Chantre y el asesor de la Alcaldía don Joxe Martin Abaurrea y ahí, en esa reunión, solo se habló de temas técnicos y lo que el señor alcalde le solicitó fue que retirara la posibilidad de una edificación de 600 m2 en dos plantas, que es lo que aparece en esa modificación, algo a lo que los representantes de la empresa Alkarrekin se negaron. Pero, lógicamente, ni el arquitecto ni el abogado del señor Chantre hablaron del destino que se le iba a dar a esa nave, puesto que ellos defienden las partes técnica y jurídica de esta modificación y no su destino final. Por lo tanto, vuelvo a repetir: ruego encarecidamente a esta corporación que trabaje sobre documentos presentados, escritos y firmados y no lo que se cuente por ahí, aunque el que lo diga sea el señor Chantre, el señor Irigoyen o el señor X que nunca se aclaró”.

Alcalde: “Yo, comentar que en la reunión mantenida, yo al menos, les oí bien claro que su intención era, como anteriormente se ha dicho, la de hacer un centro comercial y una gasolinera. De todas formas y como antes hemos dicho, para que esta unidad pueda desarrollarse, continuaremos trabajando y en contacto con Chantre, dejando siempre clara cual es nuestra postura y con la intención de lograr acuerdos. Pero votaremos en

honetan hau onartzeak unitate horretan merkatal gune bat ezartzeko arriskua izan ditzakeela ulertzen dugulako”.

Eztabaida amaitutakoan, bozketa egin da. EAJ/PNVko bost zinegotziek Alkarrekin S.A.-k aurkezturiko proposamena hasiera batean onartzearen alde eman dute botoa. Bilduko bost zinegotziek kontra eman dute.

Berdinketa gertatuenez gero, bertze bozketa egin da, emaitza berarekin. Hori dela eta, alkate jaunaren kalitatezko botoarekin ez da onartu Alkarrekin S.A.-k eginiko proposamena.

7 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda (141.etik 190.era, biok barne).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla eta Udaltzaren eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta “eskari-galderak” puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako aferarik planteatu.

contra de esta propuesta de hoy, como se ha dicho antes, porque entendemos que, en este momento, el aprobar esto puede tener el riesgo de establecer una zona comercial en esa unidad”.

Una vez finalizado el debate, se procede a la votación. Los cinco concejales de EAJ/PNV votan a favor de aprobar inicialmente la propuesta presentada por Alkarrekin S.A. Lo hacen en contra los cinco concejales de Bildu.

Ante el empate producido se procede a realizar una nueva votación, que obtiene el mismo resultado. Por ello y con el voto de calidad del señor alcalde queda desestimada la propuesta realizada por Alkarrekin S.A.

7 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 141 a 190, ambos inclusive).

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se formula cuestión alguna.

8 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK.

Jose Luis Echegaray jaunak adierazi du: "Egiaztatu dugu azken egun hauetan, Lesakako karriketan lau langile berri ari direla lanean, ustez Udalak kontratatuak.

Lesakan 200 langabe inguru daudelako oinarritik abiatuz, eta kontuan hartuta lau pertsona hauek, gure iritziz, ez direla: ez lau pertsonarik behartsuenak, ez lau pertsonarik langileenak, ez lanik egin gabe denbora gehiago zeramaten lauak, honako hau jakitea gustatuko litzaiguke:

Zer meritu kontuan hartu dira haien alde eta zein gabezi Lesakako gainerako langabetu eta behartsuen kontra, aukeratzeko orduan?

Zein izan da horiek kontratatzeke erabili den hautaketa-prozesua?

Zeigatik kontratatu dira hauek lauak eta ez bertze lau, kontratatzen ahal ziren berrehunetik?

Alkate jaunak erantzun du: "Lehendabiziko adierazi nahi dut, nahiz eta Udalak kontratatzen dituen langile hauek, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egiten duela aukeratu.

Baita ere aipatu nahi dut deialdi hau R.I.S. (Renta de Inclusión Social delakoa) kobratzen ari ziren pertsonak kontratatu ahal izateko atera zuela Gobernuak. Hau dela eta, Mankomunitatetik egoera honetan herrian dauden pertsonak zein diren begiratu da eta, hauen artean, beraien irizpideen arabera, lan hau (sei hilabeteko kontratazio hau) izatea komenigarrien izanen luketen lau pertsonak

8 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.

Indica don José Luis Echegaray: "Hemos comprobado en los últimos días, que en las calles de Lesaka trabajan cuatro nuevos operarios supuestamente contratados por el Ayuntamiento.

Partiendo de la base que en Lesaka, hay alrededor de 200 parados y teniendo en cuenta que estas cuatro personas, a nuestro entender, no son: Ni las cuatro personas más necesitadas, ni las cuatro personas más trabajadoras, ni las cuatro que más tiempo llevaban sin trabajar, nos gustaría saber:

¿Qué méritos se han tenido en cuenta a su favor y que defectos en contra del resto de los parados y necesitados de Lesaka, a la hora de elegirlos?

¿Cuál ha sido el proceso de selección utilizado para su contratación?

¿Por qué han sido contratadas estas cuatro y no otras cuatro de las doscientas posibles?"

Responde el señor alcalde: "En primer lugar quiero indicar que, aunque sea el Ayuntamiento quien contrata a estas personas, es la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak la que los selecciona. Quiero señalar también que el Gobierno sacó esta convocatoria para poder contratar a las personas que estaban cobrando el R.I.S. (Renta de Inclusión Social). Ante ello, desde la Mancomunidad se ha mirado cuales son las personas que están en esta situación en el pueblo y, entre estas, conforme a sus criterios, se ha escogido a las cuatro personas a las que les resultaría más

aukeratu ditu. Baita ere adierazi, ez lirateke izanen Lesakako 200 pertsona deialdi honetan sartzeko aukera izanen luketenak. Mankomunitatearen arabera, oker ez banabil, 12 edo 14 pertsona baino ez ziren. Azkenik eta berriro ere erran, pertsona hauek hautatzeko prozedura Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariek egin dutela eta guk bederen, lan horretarako prestatua dagoen jendea dela ulertzen dugunez, beraiengan konfidantza osoa dugu”.

Echegaray: “Ez dut garaunik ere ulertzen konbentzitu nahi gaituzten horretaz. Alkate jaunak erran nahi al du ez dituela kontrolatzen ezta pertsonen kontratazioa ere Lesakako Udalean? Mankomunitateko teknikariak inposatu egin diola kontratatu behar dituen pertsonak? Non gelditzen da Bildurentzat udal autonomia azken 30 urte hauetan hainbetez kostatzen zaiguna defendatzea? Niri iruditzen zait, guttienez, Udalak kontratatu behar dituen langileak hautatzeko arduradunak izan beharko genuela. Ez baitzait balio 200 ez izateak, bortez izanda ere. Bateren bat kanpoan utzi beharko baitzen, hori da erran nahi dudana, hori da galdetzen dudana. Ez Udalak, ez Mankomunitateak, honi ere galdetu bainion, ez didate erran zein arrazoiatatik hautatu diren pertsona hauek bertez batzuk izan beharrean.”

Bertez gaia. Mankomunitatea baldin bada langileak hautatzen dituen eta ez Lesakako Udala, Nola daiteke Mankomunitate bereko partaide diren bertez lau herrietan pertsona bakar bat ere sistema

conveniente tener este trabajo (esta contratación de seis meses). Manifestar, también, que no serían 200 las personas de Lesaka que tendrían la oportunidad de participar en esta convocatoria. Según la Mancomunidad, si no me equivoco, no eran sino 12 o 14 personas. Para finalizar, decir de nuevo que el procedimiento para seleccionar a estas personas lo han hecho los técnicos de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak y nosotros al menos, como entendemos que es gente preparada para ese trabajo, tenemos una entera confianza en ellos”.

Echegaray: “No entiendo absolutamente nada de lo que se nos quiere convencer. ¿Quiere decir el señor alcalde que no controla ni siquiera la contratación de personas en el Ayuntamiento de Lesaka?, ¿Que le impone el técnico de la Mancomunidad las personas que tiene que contratar?. ¿Dónde queda para Bildu la autonomía municipal que tanto nos ha costado defender durante los últimos 30 años?. Yo entiendo que, como mínimo, deberíamos ser responsables de la selección del personal que va a contratar el Ayuntamiento. Porque no me vale que no fueran 200, aunque fueran 5. Puesto que a alguien se le tenía que eliminar, eso es lo que quiero saber, eso es lo que pregunto. Ni el Ayuntamiento, ni la Mancomunidad, a la que también pregunté, me han dado el motivo de la elección de estas personas en lugar de otras.

Otro tema. Si es la Mancomunidad la que elige al personal y no el Ayuntamiento de Lesaka, ¿Cómo es que en los otros cuatro pueblos que también pertenecen a la misma Mancomunidad no

The bottom of the page contains several handwritten signatures and scribbles. On the left, there is a large, complex scribble. Below it, there are several distinct signatures, including one that appears to be 'Echegaray' and another that looks like 'A. T. S.'. To the right, there are more scribbles and a signature that looks like 'J. R.'. The overall appearance is that of a document with multiple people's marks.

honekin kontratatua ez izatea? Niri logikoa iruditzen baitzait Mankomunitatea izan balitz hautatzeko erantzukizun guzia izan zuena, ez zela Lesaka bakarrik izanen modu horretan kontraturiko pertsonekin, zeinei errespetatu egin beharko litzaieken Agindu Foralaren bai kargak bai onurak”.

Alkatea: “Nik argitu nahiko nuke Mankomunitateak ez digula guri momentuz deus inposatzen. Bertako partaideak gara gu ere eta guretzat eta Bortzirirentzat lan egiten dutela ulertzen dugu bertako teknikariek. Hau dela eta ez dugu uste zinegotzi batzuen eskutan egon behar duenik egoera larrian dauden pertsonak eta dirulaguntza hau lortzeko aukera izanen dutenak zein izanen diren aukeratzea; horretarako prestatuak dauden teknikariena baizik.

Bortzirietako bertze herrietan ez dakit zehazki oraingo deialdi honetan zenbat pertsona eta nola aukeratu diren, baina harrigarriena egiten zait hemen jarraitu den sistema jarraitu ez izatea.

Hala ere, harremanetan jarriko naiz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearekin eta galdetuko dut, zer modutan aukeratu diren pertsonak Bortzirietako gainontzeko herrietan”.

Echegaray: “Bi gauza. Lehena, ni dagoeneko harremanetan jarri naiz Mankomunitatearekin eta gaurko egunera ez da inolako kontraturik Lesakatik kanpoko programa honekin eginikoa.

Bigarren gaia. Alkate jaunak ez baditu zinegotziak gai ikusten erabakiak hartzeko eta

hay ninguna persona contratada por este sistema?. Porque a mí me parece lógico que si hubiera sido la Mancomunidad la que tuviera toda la responsabilidad de la elección, no hubiera sido Lesaka la única con personas contratadas así, a las que habría que haber respetado tanto las cargas como los beneficios de la Orden Foral”.

Alcalde: “Yo quisiera aclarar que de momento la Mancomunidad no nos impone nada. También nosotros somos integrantes de la misma y entendemos que sus técnicos trabajan para nosotros y para Bortziriak. Por ello, no creemos que tengan que estar en manos de unos concejales, unas personas que se hallan en una situación grave y el elegir a quienes tendrán la oportunidad de obtener esa subvención, sino de los técnicos que están preparados para ello.

No sé concretamente en los otros pueblos de Bortziriak cuantas personas y como han escogido para esta convocatoria de ahora, pero se me hace de lo más extraño que no hayan seguido el sistema que se ha seguido aquí.

De todas formas, me pondré en contacto con la Mancomunidad de Servicios Sociales y preguntaré de que modo han escogido a las personas en los demás pueblos de Bortziriak”.

Echegaray: “Dos detalles. Primero, ya me he puesto en contacto con la Mancomunidad y a día de hoy no hay ningún contrato de fuera de Lesaka hecho en este programa.

Segundo tema. Si el señor alcalde no ve capacitados a los concejales para la toma de

iruditzen bazaio teknikariek beharko luketela izan Udalaren eta Mankomunitatearen kontrola eraman behar dutenak, oraintxe ziurtatu duenaren arabera, galdera bat egiten diot: Zer ari gara gu denbora galtzen komisiok eta osoko bilkurak egiten Udal honetan? Eta ¿zertan ari da bera, liberatua, soldata kobratzen, teknikari batek erabakitzen badu dena?”.

Alkatea: “Nik ez dakit nora ailegatu nahi duzun edo zer ikustera eman nahi duzun, baina lehen erran bezala, argi eta garbi ikusten dut mota horretako erabakia, horretarako prestatutako teknikariek hartu beharrekoak direla, beti ere Udalaren oniritziz”

Echegaray: “Behin kontratatutakoan eta kontuan hartuta: mendiko lan ttikiak kontraturen bidez egiten direla “Baxerri”-rekin, lorategien kudeaketa, azpikontratatua dagoela enpresa pribatu batekin, karriken garbiketa ere azpikontratatua dagoela Aspacerekin, elektrizitate, igeltsularitza eta iturgintza lanak lehiaketaren bidez esleitu zirela bere egunean, eta ondorioz, pertsona desberdinei adjudikatu zitzaizela eta badela bertze pertsona bat hori ere Udalak kontratatua paperontzietako poltsak aldatzeko eta Aspacek betetzen ez dituen garbiketa lan ttikiak egiteko, honako hau gustatuko litzaziguke jakitea:

Lau pertsona hauek zer lan egitea aurreikusia da? Zein da horien lan-plangintza eta nork kontrolatzen ditu?

Udaleko zein pertsona arduratzen da pertsonak hauek bere lana egin dezaten?

Udaleko zein pertsona arduratzen da horien

decisiones y considera que son los técnicos los que deben llevar el control del Ayuntamiento y la Mancomunidad, según acaba de asegurar, le hago una pregunta: ¿Qué pintamos perdiendo el tiempo, haciendo comisiones y plenos en este Ayuntamiento? Y ¿Qué pinta él, liberado, cobrando un sueldo, si todo lo decide un técnico?”.

Alcalde: “Yo no sé a donde quieres llegar o que quieres dar a ver, pero conforme a lo dicho anteriormente, veo claramente que una decisión de ese tipo debe ser adoptada por los técnicos que están preparados para ello, siempre con el visto bueno del Ayuntamiento”.

Echegaray: “Una vez contratados y teniendo en cuenta que: Los pequeños trabajos forestales se realizan bajo contrato con “Baxerri”, la gestión de jardines se encuentra subcontratada con una empresa privada, la limpieza de calles también se encuentra subcontratada con Aspace, los trabajos de electricidad, albañilería y fontanería fueron objeto de concurso en su día por lo que fueron adjudicados a distintas personas y existe otra persona contratada también por el Ayuntamiento para cambio de bolsas en las papeleras y pequeñas limpiezas no cubiertas por Aspace, nos gustaría saber:

¿Qué trabajos está previsto que realicen estas cuatro personas? ¿Cuál es su plan de trabajo y quién los controla?

¿Qué persona del Ayuntamiento se responsabiliza de que estas personas ejecuten su trabajo?

¿Qué persona del Ayuntamiento se

segurtasunaz eta lan-osasunaz?

Pertsona hauek jaso al dute beharrezko prestakuntza segurtasun laboralean bere lana betetzeko eman zaien lan bakoitzeko arriskuak baloratzeko?

Eta azkenik: Non geldituko dira erreflejaturik lau pertsona hauek egiten dituzten lanak, guk egiaztatzeke ea egin diren?"

Alkate jaunak adierazi du hurrengo osoko bilkuran erantzunen duela.

Aipaturiko egunaren ilunabarreko bederatzia direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

responsabiliza de su seguridad y salud laboral?

¿Han recibido estas personas la preparación necesaria en seguridad laboral para desempeñar su trabajo con la valoración de riesgos de cada uno de los trabajos asignados?

Y finalmente: ¿Dónde quedarán reflejados los trabajos realizados por estas cuatro personas para que podamos comprobar su realización?"

El señor alcalde indica que responderá en la próxima sesión.

Siendo las veintiuna horas del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

